

ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 12

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

azaroak 6

HAURRESKOLAK KRISIAN?

Herenegun Eibarren, Batzorde Parekidean jorratu genituen gaiak:

Langileen egoera. Haurreskoletan sufritzen ari garen absentismo maila nahiko altua da, ia-ia %8koa gaixotasun bajak direla eta baina, haurdunaldi baja eta amatasun baja kontuan hartuz gero, portzentaia %20ra arte igotzen da, gutxi gora behera. Portzentaie hauek ikusita, Hezkuntza sailetik ematen diren laguntzak ez dira nahikoak eta aztertzeke agindua eman diete arazoak daudelako, bai kudeatzeko, bai ekonomikoki aurre egiteko.

Zerrendetan erabilgarri dauden hezitzaileak. Oso jende gutxi dagoela komentatu ziguten. Araban adibidez, arazoa jadanik dago lurralde hori bakarrik aukeratu dutenak 7 baino ez baitira. Dena den, beste lurraldeetan arazoa hemendik gutxira aurreikusten da.

Koordinatzaile ordezkari ordaintzea. Koordinatzailea bajaran dagoenean, postu honek dakarren lana eta ardura koordinatzaile ordezkariak bete beharko ditu. Langile honi, momentuko ardura eta lana horren truke, sindikatuok lehenengo egunetik ordaindua izatea eskatu dugu, baina Partzuergoak jarraitzen du esaten, haiek onartzen dutela hilabete bat asko dela baina lehenengo egunetan ez dela ezer egiten. Eztabaida sortu zen eta ez genuen lortu ados jartzea, beraz, beste batean, berriro gaiari heldu beharko diogu.

Ibiltarien lan poltsa. Langile horiek herrialdean sortzen diren ordezkari motzak egingo dituzte. Horrek suposatzen du herrialdeko haurreskoletan zehar, lan egingo dutela.

Baldintzak:

- Lan metaketako kontratua egitea 2008ko azarotik 2009ko uztailak 31 arte.
- Egutegiaren finkapena hezitzaileekin negoziatuko da.
- Hezitzaileak dagokion lurraldeko edozein haurreskolan beteko dituzte ordezkariak.
- Hezitzaile bakoitzak erreferentziako haurreskola bat izango du, ordezkariak egin behar ez dituen bertan lanean egongo delarik:
 - Araban: Txirrinbil eta Salburua. Nahiz eta bi hezitzaileak Gasteizen erreferentziako haurreskola izan, aurreikusten da, ahal den heinean, bata Errioxa inguruko ordezkariak betetzea eta bestea beste zonaldekoak. Erreferentziako haurreskola aldatu daiteke hezitzailearen herria Errioxaldekoa bada.
 - Bizkaian: Erandio-Astrabudua, Gernika-Allende eta Zornotza.
 - Gipuzkoan: Eibar, Beasain, Donosti (Bidebieta)

ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C	01001 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbo	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	nafarroa@stee-eilas.org

ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 12

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

azaroak 6

LEPa. Behin behineko egutegia luzatu ziguten. Orientatiboa da, baina bai ziurtatu ziguten, abenduaren 17an edo 18an jakingo genukeela zein egunetan aterako diren azterketen notak. Hala ere, ondorengo da haiek luzatutakoa:

2008/11/22 Azterketa eguna	
2009/01/31	Oposizio fasearen emaitzak argitaratu. Zuzendaritza batzordearen erabakia.
2009/02/01-2009/02/13	Erreklamazio epea (10 egun abilak)
2009/03/10	Oposizio fasearen emaitzak argitaratu. Zuzendaritza batzordearen erabakia.
2009/02/13	Merituen dokumentuen aurkezpena (10egun abilak)
2009/03/20	Oposizio eta lehiaketaren emaitzak argitaratu
2009/03/26-2009/04/01	Erreklamazio epea (10 egun abilak)
2009/04/28	Behin betiko zerrendak argitaratu
2009/04/29-2009/05/08	Dokumentuak aurkezteko epea
2009/05/22	Behin betiko zerrenda
2009/05/22	Banatuko diren plazak eta plazen banaketaren eguna argitaratu.
2009/05/30	Plazen banaketaren eguna (Larunbata)

Historikak. Partzuergoak berriro ere sindikatuen teiltatu gainean utzi du pilota, sektore honen errekonozimendurako proposamenari ezetz erantzunez.